

EIBAR / 'Mussche' nobelaz arituko dira

Kirmen Uribe idazlearen hitzaldia arratsaldeko zazpietan hasiko da, Eibarko San Martin liburutegian.

ERREDAKZIOA

Kirmen Uriberekin Mussche nobelaz ariko dira gaur Eibarko (Gipuzkoa) Juan San Martin liburutegian. Idazle ondarroarrak emango duen hitzaldia, 19:00etan hasi eta 20:00ak arte izango da. Eibarko liburutegiko euskarazko irakurketa klubaren lehenengo saioa izango da. Mussche nobelan, Robert idazle flandiarraren bizitza kontatzen du. Uribek Flandria eta Euskal Herria lotzen ditu nobelan.

Nobela 1937. urtean hasten da; urtea harten, Santurtziko portutik erbestera eramaten zituzten milaka haur. Karmentxu izeneko zortzi urteko neskatoak, esaterako, Robert Mussche idazlearen etxearen hartu zuen babesea. Hortik aurrera, nobelak garai gatazkatsuak kontatzen ditu Bigarren Mundu Gerraren amaiera arte.

Musschek bi adiskide ditu; Herman Thiery eskolako laguna eta Vic Opdebeeck emaztea. Bikotearen Carmen alabak eta 1936ko gerrako Karmentxu euskal herritarrak sendotzen dute Flandriaren eta Euskal Herriaren arteko lotura. Spainiako gerraren eta II. Mundu Gerraren aranean gertatzen da: erresistentzia borroka, literatura, jakintza, maitasuna, kultura... dira osagaiak.

Nobela honek, Kirmen Uribe, idazle ondarroarra gehiago ezagutzeko aukera ematen du.

HITZALDIA

Noiz: Urriaren 8an, asteartean, 19:00etan.

Non: Eibarko San Martin liburutegian.